



121. OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaia herrian, 2018ko uztailaren 26an, arratsaldeko seietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Lehendakaria: Oier Korta Esnal jna.

Bertaratutako zinegotziak:

M. Cruz Alvarez Aparicio and.
Gotzon Embil Unanue jna.
Jon Joseba Iraola Rezola jna.
Cristina Vicente Iciar and.
Ane Arregi Urbieta and.
Alex Oliden Antia jna.
Arritokieta Iribar Egaña and.
Josu Arrieta Arriola jna.
Joseba Josu Azpiazu Azkarra jna.
Miren Pilare Galfarsoro Madariaga and.
Ione Muguerza Egaña and.
Arritokieta Marañon Basarte and.

Ez bertaratuak:

Idazkaria: Gorka Urgoiti Agirre

EGUNEKO AZTERGAIK



- 1.- AURREKO BILERETAKO AKTEN ONARPENA, BIDEZKO BADA:**
(119. zbkia – 2018.04.26
120. zbkia – 2018.05.17)

119. proposamen-akta ez da onartzen.

120. proposamen-akta onartzen da.

6.3 ZUMAIKO JUBILATUEN ETA PENTSIONISTEN PLATAFORMAK AURKEZTURIKOA: PENTSIONAK

Erabaki dute proposamen hau gai zerrendaren lehenengo puntu bezala tratatzea.

lehenik eta behin gaia tratatzen den edo ez bozkatu dute.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 13 boto (5 EAJ-PNV, 6 EH BILDU, 1 ES-SV, 1 ATXIKI GABEKOA)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: Gaia tratatzea erabaki da

Udal-gobernuak gaia puntuz puntu tratatzea proposatu du eta bozketa egin dute onartzeko.



ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 6 boto (5 EAJ-PNV, 1 ES-SV)

Kontrako botoak: 7 boto (6 EH-BILDU, 1 ATXIKI GABEKOA)

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: Proposamena puntuz puntu bozkatzea ez da onartzen

Proposamena bere osotasunean tratatzeko proposamena bozkatu dute:

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: : 7 boto (6 EH-BILDU, 1 ATXIKI GABEKOA)

Kontrako botoak: 6 boto (5 EAJ-PNV, 1 ES-SV)

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: Proposamena osotasunean bozkatzea onartzen da.

Proposamenaren testua:

Zumaia jubilatuen eta pentsionisten plataformen mozio-proposamena

MOTIBOEN AZALPENA.

Gaur egun, pentsio publikoen arazo nagusia hauxe da:

Gizarte Segurantzaren finantziazioa agortzen ari da: batetik, lan-erreformak soldaten murrizketa orokorra eta lan-prekarietatea ekarri ditu, eta bestetik, kotizazioak gutxitu dira eta langabezia handitu.

Soldata duinik gabe ez dago pentsio duinik. Pentsioen iraunkortasuna arazo POLITIKO bat da, ez ekonomikoa. Zehatzago, aberastasun banaketa kontua da, Konstituzioaren 50. artikulua ezartzen du pentsioak herritar guztien eskubide direla. Eskubide hau Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean ere bermatua dago, 22. artikuluan.



Zumaia Udala

2018IAKU0005-A18/6894

Kolektibo hau osatzen dugunok urteak daramatzagu eros-ahalmena galtzen gure pentsioetan. Estatuko Gobernuak, bai PSOE bai PPkoek, egindako pentsio-erreformek kalte handia egin digute. Gu gara murrizketak jasatzen ari garenak, kosta egiten zaigu hil-amaierara iristea, eta batzuetan ezin dugu ezta berogailua piztu ere egin; aitzitik, Banketxeek, elektrizitate konpainiek, enpresariak, politikariak, militarrek... jasotzen dituzte DIRUA eta LAGUNTZAK.

Pentsionista gehienok pobreziaren mugaren azpitik kobratzen dugu, eta urteetan lan egin eta kotizatzen egon ondoren, gero eta zailagoa egiten zaigu gure bizitzaren azken zatia duintasunez bizitzea.

BERAZ, HERRI HONEN ALDE EGINDAKO LANAK EMATEN DIGUN ESKUBIDEAZ BALIATUTA, EXIJITZEN DUGU GUTXIENKO PENSIO BATZUK BERMATZEA, DUINTASUNEZ BIZITZEN LAGUNDUKO DIGUTENAK.

Eta MOZIOEN puntuak honako hauek dira:

AZALDUTAKO GUZTIAGATIK ETA ULERTURIK BORONDATE ETA ERANTZUNKIZUN POLITIKO KONTU BAT DELA, ZUMAIAKO UDAL BILKURARI ETA UDAL TALDEEI ESKATZEN DIEGU MOZIO HAU ONARTZEA.

1.- Blindatu egin dadila Espainiako Konstituzioaren 50. artikuluan idatzita dagoena, hau da, pentsionista guztiek pentsio duina izateko Eskubidea. Eta Gizarte Segurantzaren Kutxa Orokorra defizitarioa den bitartean, sar dadila dagokion defizita Estatuko Aurrekontuetan.

2.- Eska dadila 1.080 euroko gutxieneko pentsio bat ezartzea pobreziaren mugatik irteteko, Europako Gutun Sozialak ezartzen duen legez; eta hori egin ezean, Eusko Jaurlaritza izan dadila ezarriko duena behar den osagarria Euskadiko pentsionista guztiak hilero kopuru horretara iristeko.

3.- Indargabetu dadila 23/2013 Legea, Gizarte Segurantzaren Pentsio Sistemaren Jasangarritasun Faktorea eta Errebalorizazioa Indizea arautzen dituen, pentsio duinak bermatzeko; eta KPI errealekiko lotura ezarri, etorkizunean pentsioak eguneratzeko formula gisa.

4.- Indargabetu dadila 2.011ko lan-erreforma, ondorio negargarriak izan dituelako enpleguaren kalitatean eta kotizazioetan, arriskuan jartzen dutenak pentsioen sistema publikoaren iraunkortasuna.

5.- Ezar dadila babes eta Gizarte Segurantzaren sistema bat Euskal Autonomia Erkidegorako, pentsio publikoak eta pertsona nagusiek behar duten arreta bermatuko dituen, eta hasi daitezela pausoak ematen Gizarte Segurantzaren arloan eskumenak transferitzeko EAera, Gernikako Estatutua onartzen duen 3/1979 Lege Organikoaren 5. Xedapen iragankorrean eta 18.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

6. eta azkena.- Igo dakizkiola Eusko Jaurlaritzari eta Estatutuko Gobernuari Udal honek hartutako akordioak.

Zumaia, 2018-07-02

Nagusilan Zumaia

Zumaiaiko Jubilatuen eta Pentsionisten Plataforma

Zumaiaiko Duintasuna Elkarteak.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 7 boto (6 EH BILDU, 1 ATXIKI GABEKOA)

Kontrako botoak: 6 boto (5 EAJ-PNV, 1 ES-SV)

Abstentzioak: 0



ERABAKIA: Pentsionista guztiek pentsio duina izateko eskubidearen aldeko proposamena onartu da

2.- OGASUNA.-

2.1.- IRIZPENAK:

2.1.1.- 2017KO KONTU OROKORRA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.

2018KO UZTAILAREN 12EKO, KONTUEN BATZORDE BEREZIKO IRIZPENA, 2017KO KONTU OROKORRARI DAGOKION ONARPENA.

AURREKARIAK

1.- 2018ko martxoaren 27an 2017ko aurrekontuen likidazioak onartzen dira, Udalari eta Erakunde Autonomoari dagozkiena, Kirol Patronatua.

2.- 2018ko maiatzaren 31an, 2017ko Kontu Orokorra aurkezten da Kontuen Batzorde Berezian ekitaldian zehar burutu diren aurrekontu-eragiketak guztiak, aurrekontuz kanpokoak, ondarezkoak eta diruzaintzakoak jasotzen ditu eta kopuru eta kontzeptu garrantzitsuenak aztertzen dira.

3.- Jendaurrera azaldu zen da 15 egunetan (2018/06/12tik 2018/07/03ra), Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63.3 artikulua arabera.

Ondorioz, batzorde honek aldeko **IRIZPENA** jasotzen du honako botoekin:

Aldeko botoak: 3 (2 EAJ-PNV eta 1 EH BILDU)

Abstentzioak:

Aurkako botoak:

Jendaurreko epea amaitutakoan erreklamazio edo oharrik jaso ez denez 2017ko Zumaiko Udalaren Kontu Orokorraren onarpena udalbatzara eramatea. Halaber, Kontu Orokorraren berri emango zaio Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, behar bezala onetsita, haren arautegian ezarritakoaren arabera.

Zumaia, a 12 de julio de 2018.

Kontu-hartzailea

O.e.
Batzordeburua



ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 13 boto (5 EAJ-PNV; 6 EH BILDU; 1 ES-SV; 1 ATXIKI GABEKOA)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: 2017. Ekitaldiko KONTU OROKORRA onartu da.

2.1.2.- ITZURUN ZUHAIZBIDEA 4KO FATXADA ERABERRITZEARI DAGOKION ZERGARI HOBARIA APLIKATZEA ETA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 13 boto (5 EAJ-PNV; 6 EH BILDU; 1 ES-SV; 1 ATXIKI GABEKOA)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: Itzurun zuhaizbidea 4ko eraikinean fatxada eraberritzeko proiektuan, %95eko hobaria ematea onartzen da .-

2.2.- 2018KO 2. HIRUHILABETEKO ORDAINKETAREN BATAZ BESTEKO EPEAREN ETA EXEKUZIOAREN BERRI EMATEA.



ORDAINKETEN BATEZ BESTEKO EPEA (OBBE)						
Toki entitatea: ZUMAIA						
Ekitaldia: 2018						
Hiruhilekoa: Hiruhilabetea 2						
Entitatea	Ordaindutako eragiketak		Ordaindu gabeko eragiketak		OBBE	Oharrak
	Ratioa	Zenbatekoa	Ratioa	Zenbatekoa		
81 ZUMAIA	7,04	1.210.791,80	29,94	194.813,08	10,21	
381 ZUMAIKO KIROL PATRONATUA	23,68	155.231,87	12,67	89.689,81	19,65	
OBBE globala	8,93	1.366.023,67	24,50	284.502,89	11,61	

2.3.- UDALAREN 2018KO 5, 6, 7 ETA 8. KREDITU ALDAKETEN KONTU EMATEA.

527/2018 ALKATE ERABAKIA

GAIA: kreditu aldaketa, kreditu transferentzia

"Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, gastu partiden arteko kreditu transferentzien modalitatekoa, 2018-KALD-000005-00 (2018KKRT0001) zenbakiduna, Ikusita Kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan ezarritakoarekin.

Arestian aipatutako Foru Arauak 29. artikuluen 3. eta 4. apartatuen bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
-----------	-------	------------------	------------	--------------------



Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
2	ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK	6.000,00	6.000,00	0,00
GUZTIRA		6.000,00	6.000,00	0,00

Kreditua jasoko duten gastuak (altak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
4	TRANSFERENTZI ARRUNTAK	0,00	6.000,00	6.000,00
GUZTIRA		0,00	6.000,00	6.000,00

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe imo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontu-hartzailtza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udaltzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran"

ALKATEA

567/2018 ALKATE ERABAKIA

GAIA: Kreditu aldaketa, kreditu gehigarriak

Ikusita kreditu gehigarrien bidezko kreditu aldaketaren 2018-KALD-000006-00 (2018 KCRE0003) zenbakidun espedientea.

Ikusita kontu-hartzaileak egindako txostena. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Arestian aipatutako Foru Arauak 34.3 artikulua bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK



Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
4	TRANSFERENTZI ARRUNTAK	5.000,00
6	INBERTSIO ERREALAK	58.417,39
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		63.417,39

FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	ACTIVOS FINANCIEROS.	63.417,39
GUZTIRA		63.417,39

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da kontu-hartzaitza zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udalbatzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

ALKATEA

618/2018 ALKATE ERABAKIA

GAIA: Kreditu aldaketa, kreditu gehigarriak

Ikusita kreditu gehigarrien bidezko kreditu aldaketaren 2018-KALD-000008-00 (2018 KCRE0004) zenbakidun espedientea.

Ikusita kontu-hartzaileak egindako txostena. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Arestian aipatutako Foru Arauak 34.3 artikulua bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK



Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
2	ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK	7.399,84
6	INBERTSIO ERREALAK	24.344,28
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		31.744,12

FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	ACTIVOS FINANCIEROS.	31.744,12
GUZTIRA		31.744,12

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udalbatzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

ALKATEA

2.4.- AURREKONTU EGONKORTASUNA ETA GASTU ARAUA EZ BETETZEAREN ONDORIOZ TXOSTENAREN BERRI EMATEA.-

TXOSTENA

AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA

2018. URTEKO AURREKONTUA (8. Kreditu aldaketa egin ondoren, kreditu gehigarriak)

ARAUDI APLIKAGARRIA

* 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.

* 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.



Zumaia Udala *

2018IAKU0005-A18/6894

Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2017ko azaroaren 7an, Jarraibidea onartzen duena finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan.

FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)

1. ENTITATE ZERRENDA:

1. ZUMAIA
2. ZUMAIKO KIROL PATRONATUA

2. HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA

Aurrekontuen egonkortasuna

Entitate honen finantzaketa ahalmena/premia, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera, honako hau izatea espero da 2018. urtean:

Defizita: 3.228.858,77

Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doikuntzarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetak sarreren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetak gastuen arteko diferentziaren bitartez egin da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

2018. urterako ezarritako helburua defizita zero izatea da.

Hori dela eta, toki entitate honek ez du betetzen aurrekontu egonkortasunaren 2018. urterako helburua.

Finantzen iraunkortasuna

2018-12-31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, honako hau izatea espero da, 2017. urteko sarrera arrunten aldean:

Zor bizia: %20

Sarrera arruntak: 13.451.281,50.

Zorra: Bankuekin maileguak: 1.799.192,54 – 139.241,05 – 219.950,5 (urtarrilean amortizatu zena, etxe salmentarengatik): 1.440.000,99

Mankomunitatearekin zorra, Urteta zabortegiaren kudeaketa: 727.334,14 (27.974,39*26)

IDAeko mailegua: 504.219

Aurreikusitako zorra, 2018/31/12an: 2.671.554,13

Kalkulua egiteko, 2017-12-31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiak kontuan hartuta, bai epe luzekoak, bai epe laburrekoak, abaletatik eratorritako arriskua barne.

Emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2018. urtean aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2018. urterako aurreikusitako amortizazioak.

2018. urterako ezarritako helburua zor bizia %75 baino handiagoa ez izatea da.

Hori dela eta, toki entitate honek betetzen du finantza iraunkortasunaren 2018. urterako helburua.



Gastuaren araua

2018. urtean gastu konputagarria eta gastuaren muga honako hauek izan dira:

Gastu konputagarria: 16.239.695,77

Gastuaren muga: 11.780.405,93

Diferentzia: 4.459.289,84

DGrekin finantzatutako obligazioak: 3.063.836,77

Aurreko kalkulua egiteko, goian zerrendatutako entitateen datu bateratuak erabili dira, ondoko taulan xehatzen den moduan:

	2018	2017
Gastu ez finantzarioak (1-7 kapituluak)	17.310.193,77	12.215.524,38
Zorraren interesak	16.423,00	19.214,76
SEC doikuntzak	0,00	0,00
Admin.publikoen ekarpen finalistekin finantzatutako gastua	1.054.075,00	692.006,95
Gastu konputagarria	16.239.695,77	11.504.302,67
Gastuaren hazkundearen muga:	%2,40	
Araudiaren aldaketen eragina:	0,00	
Gastuaren muga	11.780.405,93	

Hori dela eta, toki entitate honek ez du betetzen 2018. urterako gastuaren araua.

3. ONDORIOAK

Toki entitate honek ez ditu betetzen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren arloetan 2018. urterako ezarritako helburuak edota gastu araua. Likidazioan egoera hori berretsiko balitz, toki entitate hau behartuta legoke plan ekonomiko finantzarioa onartzera. Aipatutako planak ahalbideratu behar du urteko ekitaldian eta hurrengoan defizitaren helburua eta gastu araua betetzea, eta 2020an zor bizia sarrera arrunten %70 edo txikiagoa izatea. Plan hori Udalbatzari aurkeztu beharko zaio hilabeteko epean, gehiena jota, likidazioaren espedientea onartzen denetik kontatzen hasita; bi hilabeteko epean onartu beharko da, gehiena jota, aurkeztzen denetik kontatzen hasita; eta martxan jarri beharko da hiru hilabeteko epean, gehiena jota, likidazioaren espedientea onartzen denetik kontatzen hasita.

Kontu-hartzailea

3.- HIRIGINTZA.-

3.1.- IRIZPENA:

"12.2. TORREAGA" GUNEARI -TORREAGABERRI- DAGOKION HITZARMENAREN HASIERAKO ONARPENA, BIDEZKO BADA.

Alkateak irizpen hau gaizerrendatik atera du



ZUMAIAKO ARAU SUBSIDIARIOEN 17 HA-ARTADIKO XEHETASUN AZTERKETAREN BERRIKUSPENA. ALEGAZIOARI ERANTZUNA

Expediente nº: 2017HPXA0001

Informe-Propuesta de Secretaría

Procedimiento: Revisión de Oficio de un Acto Administrativo

Asunto: Estudio de Detalle AU 17 Artadi

Documento firmado por: ElSecretario

INFORME-PROPUESTA DE SECRETARÍA

En relación con el expediente relativo a la revisión de oficio de la aprobación del Estudio de Detalle del AU17 Artadi, en cumplimiento del Acuerdo de Pleno de fecha 16 de marzo de 2018, emito el siguiente informe-propuesta de resolución, de conformidad con lo establecido en el artículo 175 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales aprobado por Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, con base a los siguientes,

ANTECEDENTES DE HECHO

Visto que, El Ayuntamiento en Pleno en sesión extraordinaria de 9 de octubre de 2017 aprobó definitivamente el Estudio de Detalle de la UE 17-1 del AU 17-Artadi.

Visto que D^a Isabel y D^a Raquel Gorriti Amor interpusieron recurso de reposición el 22 de noviembre de 2017.

Visto que el informe del arquitecto municipal señala que, contraviniendo el artículo 65 del Real Decreto 2159/1978 de Planeamiento, el estudio de detalle al realizar la ordenación de volúmenes supera las alturas máximas fijadas en las NNSS de Zumaia.

Visto que el artículo 47 de la Ley 39/2015 de procedimiento administrativo común de las administraciones considera nulo de pleno derecho los actos administrativos que se dictan sin cumplir el procedimiento que corresponda en cada caso; y que el artículo 106 faculta a las administraciones para revisar de oficio sus propios actos.

Visto que en sesión extraordinaria de 16 de marzo el pleno del Ayuntamiento acordó estimar en parte las alegaciones formuladas por D^a Isabel y D^a Raquel Gorriti Amor e iniciar el procedimiento de revisión de oficio del acto administrativo que dio lugar a su aprobación. El acuerdo se publicó en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 58 de 22 de marzo de 2018 dando así cumplimiento al trámite de información pública.

Visto que en el trámite de audiencia D^a Isabel y D^a Raquel Gorriti Amor con fecha 16 de abril de 2018 han formulado alegaciones.



LEGISLACIÓN APLICABLE

- Los artículos 47.1, 106, 108 y 110 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.
- Ley 9/2004, de 24 de noviembre, de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi.
- Decreto 167/2006, de 12 de septiembre, por el que se aprueba el Reglamento de organización y funcionamiento de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi.
- Los artículos 4.1.g), 22.2.j) y 110 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.
- Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental.
- Ley 3/1998, de 2 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco
- Ley 2/2006, de 30 de junio, del Suelo y Urbanismo del País Vasco

FUNDAMENTOS JURÍDICOS

Se reiteran los razonamientos contenidos en el informe técnico de 24 de enero de 2018, salvo en lo que se refiere al apartado tercero del informe puesto que conforme a la interpretación contenida en la Sentencia 109/2017 del Tribunal Constitucional la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental sujeta a evaluación ambiental a TODOS los instrumentos de planeamiento, incluyendo en consecuencia también a los Estudios de Detalle. Señala asimismo que «no es posible continuar con la tramitación del procedimiento sustantivo en tanto éste no se evacúe», de modo que la omisión de este trámite conlleva la nulidad de las actuaciones y su retroacción para integrar los aspectos medioambientales en la decisión final del plan, programa o proyecto.

Visto cuanto antecede, se considera que el expediente ha seguido la tramitación establecida en la Legislación aplicable, procediendo su aprobación por el Pleno municipal, en virtud del artículo 22.2.j) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

Por ello, de conformidad con lo establecido en el artículo 175 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales aprobado por Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, el que suscribe eleva la siguiente propuesta de resolución:

INFORME-PROPUESTA DE RESOLUCIÓN

PRIMERO. Estimar las siguientes alegaciones presentadas por D^a Isabel y D^a Raquel Gorriti Amor en relación con el expediente de revisión de oficio del Estudio de Detalle del AU17 Artadi, por los motivos expresados en los informes técnicos y jurídicos.

SEGUNDO. Declarar nulo de pleno derecho el acto administrativo por el que se aprueba el Estudio de Detalle del AU17 Artadi de las NNSS de Zumaia.



Zumaiako Udala

2018IAKU0005-A18/6894

TERCERO. Notificar a los interesados la declaración de nulidad del acto administrativo y remitir el expediente a la Comisión Jurídica Asesora.

No obstante, la Corporación acordará lo que estime pertinente.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 13 boto (5 EAJ-PNV; 6 EH BILDU; 1 ES-SV; 1 ATXIKI GABEKOA)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:. ZUMAIAKO ARAU SUBSIDIARIOEN 17 HA-ARTADIKO XEHETASUN AZTERKETAREN BERRIKUSPENA ONARTU DA

4.- PERTSONALA.-

4.1.- IRIZPENAK:

4.1.1- DIRUZAINA LANPOSTUAREN SORRERARENGATIK 2018KO LANPOSTUEN ZERRENDAREN ETA PLANTILLA ORGANIKOAREN ALDAKETA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.

2018KO MAIATZAREN 31KO PERTSONAL BATZORDEAREN IRIZPENA, DIRUZAINA LANPOSTUAREN SORRERARENGATIK 2018KO LANPOSTUEN ZERRENDAREN ETA PLANTILLA ORGANIKOAREN ALDAKETAREN ONARPENAREN INGURUKOA.

AURREKARIAK

Herri Administrazioetarako Ministerioko Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiaren 1988ko martxoaren 16ko Ebazpenaren bidez, behin betikotu egin zen gaikuntza nazionala duten toki-administrazioetako funtzionarioentzat gordetako lanpostuen sailkapena (1988ko martxoaren 22ko BOE, 70. zk.). Ebazpen horren arabera, Zumaiako Udaleko bigarren mailako sailkatzea ebatzi zen.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (aurrerantzean, TAOL) 92. bis artikulua, Toki Administrazioaren Arrazionalizazioari eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak (TAAIL) emandako idazkeran, ezartzen du badaudela, toki-korporazio guztietan, gaikuntza nazionalako Toki-administrazioetako funtzionarioentzat gordetako administrazio-erantzukizuneko



nahitaezko funtzio publikoak; funtzio horien artean kontabilitatea, diruzaintza eta diru-bilketa daude.

Hori dela eta, TAAIL indarrean jarri ostean, Bigarren motako idazkaritza duten toki-korporazioek, beraz, nahitaez eduki behar dute Diruzaintzako lanpostua, eta gaikuntza nazionala duten Toki Administrazioeko funtzionarioek bete behar dute lanpostu hori.

2018ko martxoaren 27an egindako ezohiko batzarrean, Zumaia Udaleko Osoko Bilkurak onartu zuen Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari eskatzea Toki Administrazioeko gaikuntza nazionalako funtzionarioentzat gordetako Udal horren Diruzaintzako lanpostua sailkatzeko.

Aipatutako TAOLaren 92. bis artikulua laugarren atalean bildutako ondorioz, gaikuntza nazionala duten toki-administrazioeko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretua onartu da.

Errege Dekretu horren 14.1 artikuluan azpimarratzen da idazkaritza bigarren mailakotzat sailkatuta duten toki-korporazioetan Diruzaintza izeneko lanpostu bat egon behar dela, eta lanpostu horrek izango duela diruzaintzari eta diru-bilketari lotutako eginkizunen administrazio-erantzukizuna. Lanpostu hori, halaber, toki-administrazioeko funtzionario batek bete behar du, kontuhartzailtza-diruzaintza azpieskalan maila nazionalako gaikuntza izango duena.

Horri lotuta, 128/2018 Errege Dekretuko seigarren xedapen iragankorreko bigarren apartatuan ezartzen da idazkaritza bigarren mailakotzat sailkatuta duten toki-korporazioetan, baldin eta errege dekretu hau indarrean jartzen denean diruzaintzaren lanpostua toki-administrazioeko eta nazio mailako gaikuntzadun funtzionarioen eskalakoentzat gordeta ez badago, lanpostuen zerrenda aldatu beharko dela eta dagokien autonomia-erkidegoari eskatu beharko diotela lanpostu hori toki-administrazioeko funtzionarioentzat gordetzeko, Kontuhartzailtza-Diruzaintza azpieskalan maila nazionalako gaikuntzarekin.

Hori dela eta, Udalak aurkeztutako eskaera aztertu ondoren; TAOLaren 92. bis artikuluari jarraituz; martxoaren 16ko 128/2018 Legearen seigarren xedapen iragankorrean aurreikusitakoarekin bat etorriz; baita Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuaren 10. artikulua arabera ere, Gobernantza Publiko eta Autogobernu saileko Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendariak, 2018ko apirilaren 27ko **Ebazpenaren** bitartez, ondorengo ebatsi du:

Lehenengoa.– Zumaia Udaleko Diruzaintza lanpostua Kontuhartzailtza-Diruzaintza azpieskalako gaikuntza nazionala duten toki-administrazioeko funtzionarioentzat gordetako gisa sailkatzea.

Bigarrena.– Lanpostu hori betetzeko sistema merezimendu-lehiaketa izango da.

Hirugarrena.– Zumaia Udalak lanpostu hori bere lanpostu zerrendan gehitu beharko du lanpostua bete baino lehen.

Bestetik, diruzain lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna zehazteko, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak araututakoa kontuan izanik, Kultura eta Hizkuntza politika saileko aginduzko txostena eskatu da.

2018ko maiatzaren 8ko datako txostenean, Zumaia Udaleko euskara sailetik lanpostuari 4. HE zehazteko egindako proposamena egokia dela azaldu da eta horrek batera, derrigortasun datari dagokionez, Osoko Bilkurak lanpostuaren sorrera onartzen duen data zehaztea jaso da.

IRIZPENA



Ondorioz, 2018ko maiatzaren 31eko Pertsonal Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde: Oier Korta(EAJ)
Gotzon Embil (EAJ)
Alex Oleden (EH-Bildu)
Joseba Josu Azpiazu (EH-Bildu)

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 22.2.i) eta 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo **PROPOSAMENA** egin da:

- 1.- Zumaia Udaleko 2018ko lanpostuen zerrendan eta plantilla organikoan diruzain lanpostua sortzea, eta berori Kontu-Hartzailatza-Diruzaintza azpieskalako gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioentzat gordetako gisa sailkatzea.
- 2.- Lanpostuaren hizkuntza eskakizunari dagokionez, 4. H.E zehaztea, Osoko Bilkurak lanpostuaren sorrera onartzen duen data derrigortasun data izanik.
- 3.- Lanpostuaren baldintza ekonomikoari dagokienez, lanpostuaren behin betiko balorazioa egin bitartean, lanpostu mailako osagarri gisa, 25. maila zehaztea eta berariazko osagarri gisa urteko 16800€.
- 4.- Zumaia Udaleko 2018ko lanpostu zerrendaren aldaketa, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik, hamabost lanegunetan, jendaurrean jartzea. Egun hauetan interesatuak zerrenda ikusi eta Udal batzaren aurrean erreklamazioak jartzeko aukera izango dute. Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharpenik jaso gabe, Langileen Lanpostu Zerrenda behin betiko onartuko da.
- 5.- Zumaia Udaleko 2018ko Langileen Lanpostuen Zerrendaren aldaketa behin betiko onartzen denean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 13 boto (5 EAJ-PNV; 6 EH BILDU; 1 ES-SV; 1 ATXIKI GABEKOA)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

- ERABAKIA:**
- 1.- Diruzaina lanpostuaren sorrerarengatik 2018ko lanpostuen zerrendaren eta plantilla organikoaren aldaketa onartzen da behin behineko izaeraz
 - 2.- Zumaia Udaleko 2018ko lanpostu zerrendaren aldaketaren



iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik, hamabost lanegunetan, jendaurrean jartzea.

3.- Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharpenik jaso gabe, Langileen Lanpostu Zerrenda behin betiko onartuko da.

4.1.2.- ZUMAIAKO UDALZAINGOAREN ANTOLAMENDUARI ETA FUNTZIONAMENDUARI DAGOKION ERREGELAMENDUA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.

2018KO MAIATZAREN 31EKO PERTSONAL BATZORDEAREN IRIZPENA ZUMAIAKO UDALZAINGOAREN ANTOLAMENDUARI ETA FUNTZIONAMENDUARI DAGOKION ERREGELAMENDUAREN ONARPENAREN INGURUKOA.

AURREKARIAK

58/2015 DEKRETUA, maiatzaren 5ekoak, Euskadiko udaltzaingoaren antolamenduari eta funtzionamenduari aplikagarri zaizkion esparru-arauak ezartzen dituen, 2015eko maiatzaren 11an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Bertako **LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRAK** ondorengo arautzen du:

1.- Esparru-arau hauek indarra hartu eta hiru urteko epean, udaltzaingoari buruzko araudia duten udalek esparru-arau hauetara egokitu beharko dute araudi hori.

2.- Esparru-arau hauek indarra hartzen dutenean udaltzaingoari buruzko araudi propioak ez duten udalek ere hiru urteko epea izango dute beren araudia onartzeko.

Araututakoa kontuan izanik, Zumaia Udaltzaingoaren Erregelamendua osatu da.

Horretarako, Erregelamendu propioak osatzerakoan lagungarri izateko Eusko Jaurlaritzako Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritzatik udalei bidalitako ereduak erabili da eta berori Zumaia Udaltzaingoaren errealitateari egokitu da.

Bestetik, erregelamenduaren hasierako zirriborroa Zumaia Udaltzaingoa osatzen duten kideei eta Zumaia Udaleko langile ordezkariak azaldu zaie beraien ekarpenak zein iritziak egin ditzaten.

IRIZPENA

Ondorioz, 2018ko maiatzaren 31eko Pertsonal Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde: Oier Korta (EAJ)



Gotzon Embil (EAJ)
Alex Oliden (EH-Bildu)
Joseba Josu Azpiazu (EH-Bildu)

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 22.2.i) eta 47. Artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo PROPOSAMENA egin da:

1.- Zumaiako Udaltzaingoaren antolamenduari eta funtzionamenduari aplikagarri zaizkion esparruak arautzen dituen Erregelamendua onartzea.

2.- Aipatutako Erregelamenduaren hasierako onarpena, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik, hogeita hamar lanegunetan, jendaurrean jartzea. Egun hauetan interesatuak Erregelamendua ikusi eta Udal batzaren aurrean erreklamazioak jartzeko aukera izango dute.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharpenik jaso gabe, Erregelamendua behin betiko onartuko da.

3.- Erregelamendua behin betiko izaeraz onartzen denean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta indarrean sartuko da, argitaratzen den datako hurrengo egunetik.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 13 boto (5 EAJ-PNV; 6 EH BILDU; 1 ES-SV; 1 ATXIKI GABEKOA)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: 1.- Zumaiako Udaltzaingoaren antolamenduari eta funtzionamenduari aplikagarri zaizkion esparruak arautzen dituen Erregelamendua onartzea.

2.- Aipatutako Erregelamenduaren hasierako onarpena, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik, hogeita hamar lanegunetan, jendaurrean jartzea. Egun hauetan interesatuak Erregelamendua ikusi eta Udal batzaren aurrean erreklamazioak jartzeko aukera izango dute.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharpenik jaso gabe, Erregelamendua behin betiko onartuko da.



3.- Erregelamendua behin betiko izaeraz onartzen denean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta indarrean sartuko da, argitaratzen den datako hurrengo egunetik.

5.- PARTAIDETZA, GAZTERIA, BERDINTASUNA.-

5.1.- IRIZPENA:

5.1.1.- ETXEBIZITZEN ALOKAIURU BEKA ARAUTUKO DUEN ORDENANTZAREN ALDAKETARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.

2018ko UZTAILAREN 18KO GAZTERIA BATZORDEAREN IRIZPENA, ZUMAIKO HERRIAN, ETXEBIZITZAK ALOKATZEKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEA ARAUTUKO DUEN ORDENANANTZAREN ALDAKETARI HASIERAKO IZAERAZ ONARTZEKO

AURREKARIAK

1. Udalaren osoko bilkurak, 2017ko irailaren 28an, ondorengo erabakia hartu zuen: Zumaia herrian, etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak ematea arautuko duen ordenantzari behin betiko onospena ematea.
2. Ikusirik indarrean dagoen Ordenantzaren aplikazio eremuan ez dituela aurreikusten hainbat egoera.
3. Ikusirik 2018ko apirilaren 19ko Gazteria batzordean gaiaz informatu dela, ondorengo aldaketak proposatu dira:
 - 4. artikuluan, e) atalean diru sarreren mugetan honakoa txertatuko da: 25.000 euro gordin urtean (bizikidetzaren unitatea persona bakarrak osatzen badu); 35.000 euro gordin urtean (bizikidetzaren unitatea pertsona batek baino gehiagok osatzen badu).
 - 4. artikuluan, j) atala proposatzen da kentzea, ez delako kontuan izango.
 - 6. artikuluan, b) atala aldatu egin da, eta horrela proposatzen da: hilean, 600 euroko zenbatekoa gainditzen duten alokairuak. Salbuespenez, 800 euro arteko (honako kopurua barne) alokairuak onartuko dira, betiere, kasu horretan, honako bi baldintza betetzen badira, aldi berean: etxebizitzan, gutxienez, 3 bizikidetzaren unitate badaude errolatuta eta etxeak 100 metro karratu edo hortik gora baditu.
 - 10. artikuluan, atal sisteman, txertatu da 3.000 eurotik (diru sarera gordinak) behera ez dela diru-laguntzarik jasoko.
Atal berean, aldatu da honakoa: diru-laguntza eskatzeko garaian, ikasten ari den eskatzaileari 20 euro emango zaizkio, hilean, ikasten ari den hilabeteetan, diru-laguntzaren epe barruan.
 - 12. artikuluan, a) atalean, zehaztu da ordainketa agiriak eskatzailearen izenean izango direla. Pixkat beherago, paragrafo berean, jarri da: onartuko



Zumaia Udalak

2018IAKU0005-A18/6894

da alokairu osoaren ordainagiri bakarra, bizikidetza unitate desberdinak baldin badaude partekatzen alokairua, betiere, alokairuaren ordainagiria bizikidetza unitate eskatzaile guztien izenean badago.

IRIZPENA

Ondorioz, 2018ko uztailaren 18ko Gazteria batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

**Alde: Oier Korta (EAJ)
Ane Arregi (EAJ)**

**Abstentzioa: Arritxu Iribar (EH Bildu)
Miren Galfarsoro (EH Bildu)**

Kontra: 0

Lehendakariaren (Ane Arregi) kalitatezko botoaren arabera, ALDEKO irizpena eman du eta honako proposamen hau Udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 errege dekretuz onartutako herri administrazioen araubide juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki erakundeetako oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo proposamena egin da:

1. Hasierako ordenantzaren aldaketa egitea, goian aipatutako aldaketan arabera.
2. Jendaurrean erakutsiko da 30 lanegunez espedienteak, iragarkia gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.
3. Aipatutako epean, erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin behineko akordioa behin betikotzat hartua izango da 7/1985 Legeko 49 artikuluen arabera.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 5 boto (EAJ-PNV)

Kontrako botoak: 7 boto (6 EH BILDU; 1 ATXIKI GABEKOA)

Abstentzioak: boto 1 (ES-SV)

ERABAKIA: 1.- Etxebizitzen alokairu beka arautuko duen ordenantzaren aldaketari hasierako onarpena ez onartzea



Bozka egin dute ea proposamenak tratatzen diren ala ez.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 13 boto (5 EAJ-PNV; 6 EH BILDU; 1 ES-SV; 1 ATXIKI GABEKOA)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: Proposamenak tratatzea erabaki da

6- PROPOSAMENAK.-

6.1.- EUSKARALDIA UDAL BARRUAN SUSTATZEKO ERAKUNDE-ADIERAZPENA

EUSKARALDIA UDAL BARRUAN SUSTATZEKO ERAKUNDE-ADIERAZPENA

Azken neurketek baieztatu dutenez, euskararen ulermena eta ezagutza zabaltzen ari dira Euskal Herriko inguru ezberdinetan. Euskaraz hitz egiteko gai den jende gehiago dago, eta euskara ulertzen dutenak ere gero eta gehiago dira. Bi datu horiek aditzera ematen digutenez, euskarazko harremanak areagotzeko baldintza onak daude.

Horrela bada, euskararen erabilpen maila handiagoa sustatu eta praktika linguistiko berriak bultzatzen dituzten testuinguruak sortzeko beharra dagoela ikusten da.

Eta horixe da Euskaraldia, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Topaguneak beste hainbat eta hainbat eragilerekin elkarlanean, erabilera eta praktika linguistiko berriak sortzeko abian jarri dugun ekimena. Ezagutzatik erabilerarako jauzia emateko garaia da, euskararen alde egotetik alde egiteko garaia.

Euskaraldia Euskal Herri osoan egingo den arren tokian tokiko euskaltzale eta erakundeak izango dira herri bakoitzeko dinamiken sustatzaileak. Zumaian ere, osatu da ekimen hori garatzeko batzordea.

Ekimen horretan 11 egunetan hizkuntza-praktika berri bat gauzatzera gonbidatuko ditugu herritarrak. Ariketa horren subjektuak 16 urtetik gorako helduak izango gara eta 11 egunez helduen hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa kolektibo bat egitea da proposamena, ulermenari balioa emanda. Bi subjektu mota bereizi dira: *ahobiziak* eta *belarriprestak*.

Ahobiziak izango dira 11 egun horietan euskarari eutsiko diotenak solaskideak euskaraz ulertzen duen guztietan, eta, *belarriprestak*, berriz, solaskideak gonbidatuko dituzte berarekin euskaraz aritzera, nahiz eta *Belarriprestak* euskaraz edo gaztelaniaz erantzun.



Zumaiaiko Udala

Ekimenaren helburua da, besteak beste, ariketa praktiko horren bidez ikusaraztea eta biziaraztea hizkuntza-ohiturak alda ditzakegula, eta, ahal dela, 11 egun horiek pasa ostean, hizkuntza-praktika berri horiei eustea.

Hori guztia norberaren erabakiak errespetatuz, adeitasunez eta guztiak eroso sentitzeko moduan.

2018IAKU0005-A18/6894

Euskaraldia Gipuzkoako Foru Aldundian eta Udaletxeetan

Zumaian eta Gipuzkoan erabileran eragiteko baldintza soziolinguistiko egokiak ditugu. Eta horrek ardura eta erantzukizun berezia ematen digu Euskaraldian.

Zumaian bizi den 2 urte edo gehiagoko biztanleriaren % 73,80 euskalduna da eta ia %85ek euskara ulertzen du. Gipuzkoan biztanleriaren % 57,4 euskalduna da eta beste % 15,9k euskara ulertzen du.

Administrazioari dagokionez, Zumaiaiko ordezkari politikoen %100ek badaki euskaraz eta udal langile publiko guztiak ere bai.

Gipuzkoako ordezkari politikoen % 86,8 gai da euskaraz hitz egiteko eta beste % 3,6 ulertzeko, eta langile publikoen % 86,8k hitz egiten du euskaraz.

Baina erabilera-datuak diote Zumaian kale erabilera %57,83ekoa dela eta Gipuzkoan 16 urtetik gorakoen % 39,5ek hitz egiten duela euskaraz. Badugu non hobetu, eta horretan lagunduko digu Euskaraldiak.

Aipatutako datuak eta Gipuzkoako eta Zumaiaiko egoera soziolinguistikoa aintzat hartuta, Euskaraldia, aukera egokia dugu erakunde publikoek, eta, beraz, arduradun politikoei dagokigun erantzukizuna geure gain hartzeko eta eredugarritasunez jokatzeko, erabileran urrats berriak egite aldera.

Horregatik guztiagatik, honako hau aurkezten dugu:

ERAKUNDE ADIERAZPENA

Zumaiaiko Udalak honakoa adierazi nahi du:

- Zumaiaiko Udaltzaren **bat egiten du Euskaraldiarekin** eta ekimenaren sustatzaile izango da. Horrenbestez, **erantzukizunez** eta **eredugarritasunez** jokatzeko konpromisoa hartzen du.
- Ordezkarari politikoen **egiteko nagusia** izango da Euskaraldiaren markoan eta **bereziki udal barrura begira ekimena zabaltzea**. Horrenbestez, ekimen honetan ahalik eta *ahobizi* eta *belarriprest* gehien aktibatzen urratsak emango ditugu, arduradun politikoen izan nahiz langileak izan.
- **Ahobiziotik** euskara ulertzen duten guztiarekin euskaraz aritzeko konpromisoa hartzen dugu.
- **Belarriprestok**, gainerakoak gonbidatuko ditugu gurekin euskaraz egin dezaten, nahiz eta guk euskaraz edo gaztelaniaz erantzun.
- Zumaiaiko Udalak **neurriak hartuko** ditu **hizkuntza-praktika** horiek posible izan daitezkeen eta praktika **horiei etorkizunean eutsi ahal izateko**.
- Zumaiaiko Udalak, **udal barruan ez ezik udalerrian ere**, ekimenaren sustatzaile gisa, herritarrek gonbidatuko ditu Euskaraldiko ekimenean parte har dezaten eta izena emateko bideak erraztuko ditu.
- Zumaiaiko Udalak, bat egiten du **ekimena Gipuzkoan elkarrekin, elkarlanean eta batera garatzearekin**, lurralde mailako politika bateratu bati begira, ahalik eta udal gehienetan, mankomunitateetan, Gipuzkoako Foru Aldundian eta Gipuzkoako Batzar Nagusietan.



ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 13 boto (5 EAJ-PNV; 6 EH BILDU; 1 ES-SV; 1 ATXIKI GABEKOA)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: Se ha aprobado la proposición relativa a "Euskaraldia"

6.2.- EH-BILDU, UDAL TALDEAK AURKEZTURIKOA: TURISMO PLANA

AURREKARIAK

Urtebete baino gehiago iraun du eztabaidak, parte-hartzailea izan da, gorabeheratsua, eragile sozial askok ahiz udalbatza honetako partaideek inplikazio handiz jokatu dute, sentsibilitate politiko ezberdinek aukera izan dute beren ikuspegia azaltzeko, eta, guzti honen ondorioz, datozen hiru urteetan politika turistikoak martxan jartzeko bide-orria adostua izan da, honako helburuekin: herritarren ongizatea, bisitarien eta zumaiarren arteko elkarbizitza egokia eta ingurune naturalaren zein espazio sozialaren babesa, herritarren eskaerei eta kezkei erantzun egokia emateko. Eta bide-orri hori TURISMO PLANA da.

Gai asko izan dira adostasunera eraman gaituztenak, horien artean azpimarragarrienetakoa hauxe: Zumaiaiko turismoan eragina izan dezaketen erabaki estrategikoak hartzerakoan, adostasun zabal eta barneratzaileak beharrezkoak direla.

Estrategikoa da, nola ez, Zumaian ditugun azpiegiturei emango zaien erabilera erabakitzea, betiere, planean adostutako helburuekin bat etorriko den eskaintza turistikoa ahalbidetzeko.

Mollaberrin kokatuta dagoen Urolako estazio zaharrari emango zaion erabilerari buruz ez dago adostasun sozialik, hori jakinekoa da, gogoratu bestela 2016ko azaroan aurkeztu zen mozioa, gai horren inguruan dauden iritzi desberdinen lekuko.

Honen harira, Turismo Planean erabaki garrantzitsua hartu zen: TURISMO MAHAIA eratzea, eztabaidagune anitza eta barneratzailea (LIDERGO KOLEKTIBO KOMUNITARIOA gauzatuko duena), gai estrategiko horien inguruan eztabaidatu eta gerora kontutan hartuak izango diren proposamenak egiteko.

Udalbatza honetan ordezkaritza duten talde politikoez gain, herritarren elkarteek eta interesa duen edonork proposamenak egin ahal izango dituzte eztabaidagune horretan, betiere adostasun zabal eta barneratzailearen bila, hauxe baita erabaki egokienak jartzeko bermea.



Zumaia Udala

Horregatik eta

2018IAKU0005-A18/6894

MOZIO

Honen bitartez, Zumaia udalbatzari eskatzen diogu:

Batetik: Zumaian dauzkagun, eta erabilera turistikoa izango duten, azpiegiturak zertara bideratuko diren eztabaidatzeko gunea **TURISMO MAHAIA** izango da, hartutako erabakiak ahalik eta adostasun zabaleneakoak eta barneratzaileenak izateko.

Eta bestetik: bereziki, Mollaberrin kokatuta dagoen Urolako estazio zaharrari zer nolako erabilera emango zaion, mahai horretan eztabaidatuko da, modu zabal, eraikitzaile eta anitzean.

Zumaian, 2018ko uztailaren 19an
EH Bildu udal taldea

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 13 boto (5 EAJ-PNV; 6 EH BILDU; 1 ES-SV; 1 ATXIKI GABEKOA)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: 1.- Turismo Planean hartutako erabakia, **TURISMO MAHAIA** osatzea onartzen da

2.- Mollaberrin kokatuta dagoen Urolako estazio zaharreko erabilera **TURISMO MAHAIA**ri uztea

MOZIOAK

Udal-talde politiko, batzorde eta abarren osaketa berria eta gainontzeko entitatetan udal ordezkari izendatzea.

Mozioa tratatzea edo ez bozkatu dute:



ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 12 boto (5 EAJ-PNV; 6 EH BILDU; 1 ATXIKI GABEKOA)

Kontrako botoak: Boto 1 (1 ES-SV)

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: Mozioa tratatzea erabaki da

Udal talde politikoak:

EAJ-PNVtik:

Oier Korta Esnal,
Kristina Vicente Iciar,
Marikruz Alvarez
Gotzon Embil
Ane Arregi
Bozeramilea Oier Korta, eta ordezkoko bozeramailea Marikruz Alvarez.

EH Bildutik: Alex Oliden,

Arritxu Iribar,
Josu Arrieta,
Jone Muguerza,
Joseba Josu Azpiazu,
Miren Pilare Galfarsoro,
Talde bozeramailea Alex Oliden Antia eta bozeramaile ordezkoa Arritxu Iribar Egaña.

Socialistas Vascos, Euskal Sozialistak: Maria Arritokieta Marañon Basarte

Talde bozeramailea Arritxu Marañon

Atxiki gabeko zinegotzia: Jon Iraola Rezola,

Batzorde informatibo iraunkorraren eraketa eta osaketa

Partaidetza, Gaztedia, Euskara, Hezkuntza eta Ekonomia sustapena

batzordeburu Kristina Vicente,

Partaideak: Ane Arregi,

Miren Galfarsoro,

Arritxu Iribar,

Arritxu Marañon,

Jon Iraola



Gizarte Zerbitzuak, Berdintasuna eta etorkinak,

Batzordeburu: Kristina Vicente
Partaideak: Oier Korta,
Alex Oriden,
Miren Galfarsoro,
Arritxu Marañon,
Jon Iraola,
Ordezkoak, Jone Muguerza

Kirolak,

Batzordeburu: Gotzon Enbil,
Partaideak: Oier Korta,
Jon Iraola,
Arritxu Iribar,
Josu Arrieta,
Arritxu Marañon,
Ordezkoak, Kristina Vicente eta Jone Muguerza

Kultura, Turismo, eta Merkataritza

Batzordeburu: Oier Korta,
Partaideak: Ane Arregi,
Jone Muguerza,
Joseba Josu Azpiazu,
Arritxu Marañon,
Jon Iraola,
Ordezkoak, Gotzon Enbil eta Arritxu Iribar

Ogasuna eta Pertsonala

Batzordeburu: Marikruz Alvarez,
Partaideak: Gotzon Enbil,
Joseba Josu Azpiazu,
Alex Oriden,
Arritxu Marañon,
Ordezkoak, Oier Korta, Josu Arrieta eta Jon Iraola

Hirigintza, Ingurumena, Obra eta Zerbitzuak eta Udaltzaingoa,

Batzordeburu: Oier korta,
Partaideak: Gotzon Enbil,
Josu Arrieta,
Alex Oriden,
Arritxu Marañon,
Jon Iraola,
Ordezkoak, Marikruz Alvarez, Joseba Josu Azpiazu

Kontu berezien batzordea

Batzordeburu: Marikruz Alvarez,
Partaideak: Gotzon Enbil,
Joseba Josu Azpiazu,



Zumaia Udalak

Alex Olden,
Arritxu Marañon,
Jon Iraola,
Ordezkoak, Oier Korta, Josu Arrieta

2018IAKU0005-A18/6894

Alkateak hartutako erabakien berri ematea, ondorengo gai hauetan:

Alkateordeen izendapenak:

1. Marikuz Alvarez Aparicio and.
2. Gotzon Enbil Unanue,
3. Ane Arregi,
4. Cristina Vicente,

Tokiko Gobernu Batzarraren kideak eta maiztasunak:

Oier Korta,
M. Cruz Alvarez,
Gotzon Enbil,
Ane Arregi,
Cristina Vicente,

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 12 boto (5 EAJ-PNV; 6 EH BILDU; 1 ATXIKI GABEKOA)

Kontrako botoak: Boto 1 (1 ES-SV)

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:. Proposamena tratatzea erabakitzen da

Zumaia Kirol Porturako

Gotzon Enbil bozeramaile izatea proposatzen da
Josu Arrieta,
Alex Olden,
Arritxu Marañon eta Jon Iraola sartuko litzateke.



ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 13 boto (5 EAJ-PNV; 6 EH BILDU; 1 ES-SV; 1 ATXIKI GABEKOA)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:. **Zumaiako Kirol Porturako** bozeramaile eta ordezkoen proposamen aldaketak onartzen dira

Kirol Patronaturako proposamena:

Oier Korta,
Gotzon Enbil,
Arritxu Iribar,
Josu Arrieta,
Arritxu Marañon eta Jon Iraola

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 13 boto (5 EAJ-PNV; 6 EH BILDU; 1 ES-SV; 1 ATXIKI GABEKOA)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:. **Zumaiako Kirol Patronatuko** bozeramaile eta ordezkoen proposamen aldaketak onartzen dira

Eskola kontseiluan izendatzen ditugu: Ane Arregi izango dela ordezkaria



Zumaiako Udala

2018IAKU0005-A18/6894

UEMA lau kide izango dira: udal gobernutik bi egongo dira eta beste bi kide Alex Oliden eta Arritxu Iribar proposatzen dugula UEMAN parte izateko

Urkome, Udalbitza eta Gipuzkoako Uraren patzuergoan Oier Kortak jarraituko duela izaten kidea.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 12 boto (5 EAJ-PNV; 6 EH BILDU; 1 ATXIKI GABEKOA)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: Boto 1 (1 ES-SV)

ERABAKIA: bozeramaile eta ordezkoen proposamen aldaketak onartu dira

Jon Iraola (atxiki gabeko zinegotziak) aurkeztutako idatziaren inguruko mozio-proposamena ez tratatzea erabaki dute.

7.- ESKARI-GALDERAK.-

Jon Iraolak (atxiki gabeko zinegotziak) idatziz erantzun bat ematea eskatu du

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko zortziak eta hogeirenean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria